

Bileraren izena:

UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILERA

Lekua eta eguna: Leioa, 2015eko ekainaren 17a

Hasiera ordua: 11:00

Amaiera ordua: 13:30

Bileran buru izango dena:

Iratxe Amiano (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

Idazkaria:

Estibaliz Martínez (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

Parte hartzaileak:

Joseba Sainz de Murrieta Mangado (ISF-MGI elkarte)

Amaia Monteagudo (ARKOO ikasleen elkarte)

Karlos Perez de Armiño (HEGOA)

Maria Mirtes Clotilde (Alea Elkarte). Desenkusatu egin da ez etortzeagatik

Mari Paz Santos Ibañez (BIONATUR).

Ez dira etorri:

Maite Zelaia (Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordea)

Urtzi Saratxaga (ikasleen 0,7)

Nerea Madariaga (Letren Fakultatea)

Aztergaien zerrenda:

1. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluko kideen aurkezpena eta haien eginkizunak.
2. Lankidetzaren Kontseiluak 2010eko maiatzaren 17an eginiko bileraren bigarren puntuari azaltzen den barne funtzionamenduko arautegia berrikustea.
3. Galde-eskeak.

Akta

Bilera hasteko, Iratxe Amianok eskerrak eman dizkie Kontseiluko kideei etortzeagatik, eta kontseiluaren osaera eta funtzionamendu arautegia azaltzeari ekin dio. UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiak 2009ko abuztuaren 4an hartu zuen erabakia aipatu du.

Bileran izan direnek bertaratze orria sinatu dute.

Aztergaien zerrendako lehen puntua: UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluko kideen aurkezpena eta haien eginkizunak

Iratxe Amianok aurkeztu egin ditu errektoreak Lankidetzaren Kontseiluko kide izendatu dituen eta garapenerako lankidetzaren eskarmentua duten pertsonak. Honako hauek dira: Marta Macho Stadler, Maria Romero Perez eta Jokin Alberdi Bidaguren.

Aurkezpen txanda bat egin da, Kontseiluko kide guztiak ezagutzeko.

Aztergaien zerrendako bigarren puntua: Kontseiluaren barne funtzionamenduko arautegia berrikustea

Lankidetzaren Kontseiluaren funtzionamendu arau hauek onartu dira, aho batez:

- Hasiera batean, **bilerak** zabalik egongo dira UPV/EHUko kide guztientzat,

Kontseiluak bere gain hartzen badu ere lan saio itxiak egiteko eskubidea. Gainera, aztergaien adituak diren pertsonak gonbidatu ahal izango ditu.

- Bilkura deialdiak **zabalduko** dira EHU taulan eta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren web orriaren bidez.
- **Aztergaien zerrenda**, arategiak ezarri moduan, Maite Zelaiak proposatuko du (kontseiluburua), kontseiluko kide guztiak kontsultatu ondoren. Kontseilutik kanpoko norbaitek aztergaien zerrendarako puntu bat proposatu nahi badu, kontseiluko kide baten bidez egin beharko du. Nolanahi ere, bilera bakoitza amaitzean, Kontseiluak berak hurrengo saioaren planteamendua egingo du.
- Bilkuretako **aktan**, aztergaien zerrendako puntuetan hartutako erabakiak jasoko dira. Akta posta elektronikoz bidaliko zaio Kontseiluari, haren kideek egoki irizten dioten ekarpenak egin ditzaten. Bilera bakoitzeko aktak hurrengo saioan onartuko dira.
- Kontseiluaren lan dokumentuak berariaz sortu den GORDETALDE karpeta gordeko dira: [\gorde.ehu.es/grupos/Consejo_Cooperacion](http://gorde.ehu.es/grupos/Consejo_Cooperacion).
- Kontseiluko kideei eginiko bidalketetan, bereziki sortutako banaketa zerrenda erabiliko da: cud-kontseilua@ehu.es

Hurrengo bilera:

Onartu egin da gehiengoz Lankidetzaren hurrengo bilera irailean egitea, helburu nagusitzat izango duena egutegi bat zehaztea Plan Estrategiko bat lantzeko Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluarentzat. Plan horrek kontseiluaren lanak gidatuko ditu bilera horretan finkatuko dugun X denbora epean. Bilera horri begira, proposatu da Kontseiluak dokumentazio honen berrikuspen indibiduala egitea (Gordetalde karpeta dagoen dokumentazioa):

+ UPV/EHUko garapenerako lankidetzaren 0 diagnostikoa (2011).

+ Kontseiluak 2011n landu zuen garapenerako lankidetzako plan estrategikoaren zirriborroak.

+ Informazio erabilgarria eman dezakeen bibliografia.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu da.